

## Posesiboak Idazle Zaharretan

Gauza jakina da Nikolas Ormaetxea «Orixek» eta beste batzuek, aspaldian, hirugarren pertsonazko posesiboari buruz (*baren/bere*) erabilirik istilua.

Duda gabe hauzi hartan Orixek zedukan zuzena eta berak esandako modua gaur ere entzun daiteke Gipuzkoako eta Nafarroako leku askotan, autore zaharren liburuetan agertu bezala.

Honen arauetz, dema garbi geratu baitzen honetan, egintzaren jabea, edo egintzarekin zer ikusia duena, aditzaren barnean agertzen bada, beti BERE erabiltzen da, eta kanpoan lotzen denean, ordea, aipatu gabe, HAREN.

Esate baterako:

Jose mendira joan de Perurekin, eta han *bere* etxea erre du.

Jose mendira joan da Perurekin, eta han *baren* etxea erre du.

Lehenbizikoan argiro ematen da aditzera Josek Joseren etxea erre duela, hau da, *bere* etxe propioa.

Bigarrenean, berriz, *baren* horrek zerik adieraziten dauku, Josek Peruren etxea erre duela, bestearen etxea.

Baina aditzean pertsona biak, edo hirurak, direnean, *bere* horrek berdin esan dezake baten edo besterengatik.

Ez dut uste gauza berririk diodanik honekin, ordea, Hala ere, Gabriel Aresti jaunak, ene adiskide handia bera, euskera baturako egin dituen azterketa luzeen artean, aurkikunde berri bat egin du honi buruz eta arazoa ezezaguna delarik, Mitxelena jaunaren kontseiluz, aldizkari honetan azaltzera ausartu naiz.

*Haren/bere* arteko diferentzia bera *ene/neure* eta *hire/heure* artean ere ba dago idazle zaharretan. Exemplo bezala Bernart Etxepareko, Joannes Leizarraga, Pedro Atsular eta Mendiburu aipatuko ditut hemen.

Etxepare:

Zuk idazu, othoi, *neure* endelgamendua

Gauzen untsa egiteko *neure* azken finian

Perfektuki egiteko *neure* konfesionia

XABIER KINTANA

Joan daraudazu lehen bihotza  
Gero gathibatu *neure* gorputza

Nahiago dizit zure ikhustia  
Ezi *neuretako* herri guzia

Eta *ene* bada ere lastoa eta bihia  
Berzerentzat gelditzen da *ene* zuzenbidia

*Ene* gogoa baliaki

*Ene* gogoa untsa eztakusazu

Damnatu lukezu *ene* arima

Zutan diagozu *ene* bizia

Sainduier ere egin ezak *heure* ezagutzia  
Singularki nortan baituk *heure* debozionia

*Hire* potak, baziakiat, bertze gauza nahi DIK.  
*Hiretako* EZTIADUKAT gerthuz *neure* buruia

*Ene* etsaiak bentzi enazan *neure* azken finian  
Nik *eneak* badakuskit *ene* gaitzaz bozturik

Leizarraga:

Ezen entzun izan DUK *hire* othoitzá, eta Elizabeth *eure* emaztea erdiren zaik seme batez. Luk. I, 13.

...Zeren ezpaitituk sinhetsi *ene* hitz bere denboran konplituren diradenak. Lug I, 2.

Eta horrá, kontzebituren dun *eure* sabelean... Luk I, 31.

...Ezen benedikatua DUN *hire* sabeleko fruktua... Luk I, 42.

...Baldin *neure* ausartgoa hunez zerbait eskusa bereren eman ez-paneza... (Erreginari).

Majistruá, ikhusi DIAGU norbeit *hire* izenean deabruak kanpora egoizten zituenik. Luk IX, 49.

Jauna, permiti iezadak behin joan nadin *neure* aitaren ohorztera... Luk IX, 59.

## POSESIBOAK IDAZLE ZAHARRETAN

Onhetsiren duk *eure* Jainko jauna *eure* bihotz guziaz, eta *eure* arima guziaz, eta *eure* indar guziaz, eta *eure* pentsamendu guziaz eta *eure* hurkoa *eure* burua bezala. Luk X, 27.

*Enekin* eztena *ene* kontra da, Mat. 12, 30.

Eta nik eztut *neure* gloriá bilhatzen... Joan VIII, 50.

Atsular:

Galdu dinat nik *neure* travaillua, eta bai hik ere..., *heure* burua.

Anhitz enseiu egin DINAT, *hire* horretarik begiratzeko eta orain daramanan bide gaixtoaren huts egiteko. Baiña alferrik guztiak. Zeren nola baituen libertatea, eta *heure* burua *heure* eskuko, hala egin dun *heure* plazera eta borondatea.

Ordea, *eneak* dira faltak, *enea* da hobena. Baina guztiarekin ere *neure* obligazino handiek (...) ezterautate uzten...

Baiña *ene* kontra dela dirudien arrazoin hunek bihotz ematen deraut.

Argiro ikusten da hauetan nola forma hauek, intensiboak gabe, erre-flexiboak diren, eta aditzaren eran aipatutako pertsona agiri denean posesibo forma hau azaltzen den:

Ni *neure* aitarekin noa  
Ni *neure* aitak ikusi nau  
Ni *neure* aitari joan natzaio  
Niri *neure* aita etorri zait  
Nik *neure* aita ikusi dut  
Nik *neure* aitari eman diot  
Niri *neure* aitak eman daut

Baina:

Zu *ene* aitarekin joan zara  
*Ene* aitak eman dio  
Zuk ikusi duzu *ene* aita  
*Ene* aita amarekin etorri da

Exemploetan jarritako zenbait esalditan aditzak letra nagusiaz ezarri ditut, forma horiek hikakoak edo bokatiboak direla adierazteko eta hala-koetan ez dela erregela hori betetzen. Gauza jakina da ez dela berdín (Gi-puzkoako aditz eskas eta nahaspilatuan ezik) datiboa eta hikako forma. Ho-

nela, gaurko formaz, Bizkaian ba dira: *Joat* eta *deuat*, Lapurdin: *diat* eta *dauat*, eta Zuberoan: *diat* eta *deiat*. Ikus, bestalde, Leizarragaren zati hau:

*Errege Agrippá, dohatsu neure burua estimatzen DIAT zeren egun hire aitzinean ibardetsi behar baitut, juduez akbusatzen naizen gauza guztiez. Prinzipalki zeren baitakit ezagutzen dituala juduén artean diraden kostuma eta kestione guziak: halakotz othoitz egiten DRAUAT, pazientki entzun nézan. Ap. Akt. 26, 2-3.*

Etxeparekoaren liburutik aipatu ditudan azken bi esaldiek, argiro erakusten daukute ez dutela erregela hau betetzen. Dena dela, nolabait, hori eskusa liteke, ondo oharten bagara, aditza (posesiboen erabilkera goberntzen duena) posesiboen urrengo baitago eta ba dirudi alde zuretik asmatzea zer aditz forma jarriko zukeen ez zitzaiola erraz idazleari. Dena dela hori ez da horrela gertatzen Atsular edo Leizarragaren kasuan.

Etxepare eta Leizarragak fenomenu hau sigularezko pertsonetan bakarrik erakusten daukute eta baita pluralezko hirugarren pertsonan ere: *haien/bere*. Izan ere bai singular eta baita pluralez ere forma berdina zegoen: BERE.

Leizarragaren liburuetan, ordea, *zuen/zeuron* arki daiteke honela:

Eta zaretan hitzaren egile eta ez solament entzule, *zeuron* buruak engatzen dituzuela. S. Jakes 1, 22.

Atsularrek (eta orobat Mendiburuk, Joannes Etxeberri Sarakoak eta abar) analogiaz edo, pluralezko pertsona guztietara hedatzen du erreflexibo sistema hau, hain ezaguna den betiko «hiruren erregelaz»:

ene	hire	haren	haien	zuen	gure	zure
neure	heure	bere	bere	zeuron	GEURE	ZEURE

Atsular:

Bada eztuzu zuk ere *zeure* arrazaz ukhatu  
 Hala garamatza bada gu ere *geure* adinak  
*Zure* etxea,..., bethiere izatu da...  
*Zeure* bisita hautsirik,..., joan zinen gorthera

Mendiburuk ere berdin betetzen du erregela hau, *zere* eta *nere* erabiliaz, *zeure* eta *neure* ordez:

*Zere* buruari egiten badiozkatzu, *zure* buruak edo aragi galgarriak naiko dituen atsegin loiak...

POSESIBOAK IDAZLĒ ZAHARRETAN

Jakingarria da, bestalde, Mitxelenak esan daukunik, Errenderian ere honela usatzen dela gaur egun *zere/zure, gere/gure, ene* forma, ordea, guztiz galduta badago ere, bietarako *ner* erabiliaz.

Joannes Etxeberri Sarakoak beste pauso bat agertzen dauku pluralezko hirugarren pertsonari, *bere* gabe, BEREN jarriz eta baita BEUREN ere.

Analogiak eta herri etimologiak, ordea, joko politak egin dituzte eta honela hauxek sortuak zaizkigu:

$$\frac{\text{zeure}}{\text{zure}} = \frac{\text{neure}}{\text{NIRE}}$$

Alderantziaz, berriz, *niri* forma jatorretik urrunduaz, ENI sortu zaiku. Herriak, gainera, izenorde intensibo batzuk atera ditu NEURE, HEURE, ZEURE... eta honelakoetatik eta hona hemen, gaur egun bizi bizirik, Bizkaian batez ere, NEU, HEU, GEU, ZEUK, ZEUEK eta gisa honetakoak.

Azkenez, jakingarria da, eta hobeki estudiatzea mereziko lukeena, Aresti jaunak *nibaur, zubaur, neuror* eta gisa bereko izenordeei jakin erazi dautana: dirudienez Leizarragaren textuan honelako forma bat agertzen deanean, Vulgatan, gehienetan behintzat, *solus* hitzarekin agertzen da latinezko izenordea. Beraz ba dirudi *nibaur* edo *neuror* formak «ni bakarra» edo «ni bakarrik» adierazi nahi dukeela.

XABIER KINTANA  
Euskaltzain laguntzailea

\* \* \*

RESUMEN:

Tomando como punto de partida la doctrina ya establecida por «Orixe» y otros de que la oposición *bere* 'suus' / *haren* 'eius' está determinada sintácticamente por la referencia (*digun bere faborea* 'que él nos conceda su favor' en Beriain) o falta de referencia a los elementos de la frase recogidos por el verbo, se expone en este artículo la idea, debida a Gabriel Aresti, de que el mismo condicionamiento rige la selección de los posesivos de 1.<sup>a</sup> y 2.<sup>a</sup> persona, ante todo en singular: *ene* o *neure*, *bire* o (*h*)*eure*. Es decir que los segundos no son en manera alguna «intensivos», según la doctrina admitida, sino más bien «reflexivos», en el sentido de que su empleo está determinado por la presencia o ausencia de un índice gramatical de 1.<sup>a</sup> o 2.<sup>a</sup> persona (de «sujeto», «objeto directo» u «objeto indirecto») en el verbo de la misma

XABIER KINTANA

frase. El *corpus* en que está basado el artículo podría extenderse, dice el autor, indefinidamente. Así Beriain opone *enea da kulpa* 'mía es la culpa' a *neure bekatu eginés* 'de mi haber pecado', 'de haber pecado yo'. En cambio, las formas verbales alocutivas, que contienen materialmente un índice de 2.ª pers., van con posesivos no reflexivos: *duk* 'es (hablo contigo, varón)' pide *hire*, pero *duk* 'tú (varón) lo has' exige (*h*)*eure*.